

ENTZUMENA

Ekintza komunikatiboa: Helbide jakin baten inguruan ematen diren argibideak ulertzea.

Kultur etxera iritsi nahian

- Bisitaria:** Barkatu, kanpoko naiz. Non dago kultur etxea?
- Herritarra:** Urruti samar dago hemendik. Autobusa hartzea komeni zaizu.
- Bisitaria:** Denbora badut. Oso urruti dago oinez joateko?
- Herritarra:** Ordu-erdi batera-edo. Ikusten duzu kale hori? Zoaz, zuzen, semafororaino. Handik eskuinera hartu eta jarraitu zuzen. Oso kale luzea da. Erraza da, baina luzea.
- Bisitaria:** Asmatzen ez badut, galdetuko dut berriro. Eskerrik asko laguntzeagatik!
- Herritarra:** Ez horregatik eta ondo ibili.
- Herritarra:** Agur!